

TXANTXIKUAREN BIRKONKISTA

Kantu berri bat horma zaharren artean

 **BIOLOGIA /** Iñaki SANZ-AZKUE

Floridako lorategia parke ezaguna da Gasteizen eta inguruetan. Ezaguna eta historikoa. Izan ere, 1820an sorturikoa da, lorategi frantses kutsuko diseinuarekin, labirinto itxurako bidexka, haitzulo, ur-salto, erreka eta abarrekin. Manuel Angel de Chavarri arkitektoak egin dako 1825eko Gasteizko plano zaharretan ikus daitekeen moduan, Floridako parkea sortu zenean, alde zaharraren kanpo aldean, lorategiaren inguruak soroz eta baratzez beteak ziren, eta horien artean erreka txikien sare bat ikus zitekeen, egun etxeen eta errepideen azpian tapatuak doazen Zapardiel eta Batan errekek osaturikoa.

Baratzeek, landa eremuak, alde zaharreko horma zaharrek eta errekaetako osatzen zuten paisaia, beraz, lorategiaren inguruan. Eta horiek guztiek txantxiku arruntarentzat bizileku proposa osatzen zuten. Zalentza askorik gabe esan daiteke, hortaz, inguru horiek txantxikuaren populazio zabal bat izango zutela garai hartan.

Beste hiri askok bezala, ordea, Gasteizek ere bilakaera

urbanistiko handia izan du batez ere azken hamarkadetan, eta Floridako parkea denaren inguruak abiada bizian hasi ziren eraldatzen eta urbanizatzen. Ez da zaila pentsatzea, beraz, txantxikuak zuen bizitoki zabala desagertzen joan zela paisaia aldatzen joan zen heinean, eta hor, Gasteiz urbano berrian, babesleku bakarra aurkituko zukeen anfibioak: Floridako parkea eta bertako urmael artifiziala.

Florida parkearen irudia. 1820an sorturikoa da, lorategi frantses kutsuko diseinuarekin, labirinto itxurako bidexka, haitzulo, ur-salto, erreka eta abarrekin. Jaizki FONTANEDA | FOKU

Soroen, errekaetako eta baratzeen funtzioa bete zuen lorategi zaharrak. Hala, soinu askorik egin gabe igaroko zituen urteak eta urteak txantxikuak Floridako lorategiaren babesean, gasteiztar askoren begiradetatik urrun, gauaren babesean ezkutatu eta kantatu.


Azken urteetan, alabaina, garai bateko Gasteizko txantxiku populazio zabal horren azken eremuak, Floridako lorategiak, izan ditu bere gora-beherak, eta txantxiku populazioaren egoera ere asko okertzeko arriskuan izan zen bertan, harik eta irtenbide bat topatu zioten arte; gizakia egiten ari zenaz ohartu zen arte.

ZAPABURUAK ZULOAN BEHERA

Floridako parkeko urmaelak mantenu lanak behar izaten ditu, eta beste leku askotan egiten den moduan, horrek egoera berezi bat sortzen du: putzutik ura kendu behar izaten da denboraldi batez. Urtean hiru-lau aldiz garbitu ohi da, jende etorrera handien aurreko datetan normalean: Apirila inguruan, aste Santu-San Prudentzio aurretik; uztailean, Santiago egunaren inguruan; eta parkea orbelez bete ostean, azaro-abenduan, gabonen aurretik.

Txantxiku arruntak, alabaina, udaberrian ez ezik, udazkenean ere ugaltzeko gaitasuna du eta, hori gutxi ez eta, urte osoan egon daitezke bere zapaburuak urmalean. 2014. urtera arte, Floridako parkeko putzua garbitzen zen aldiro joaten ziren zapaburuak hustubideetan behera, eta hala, txantxikuaren etorkizunak gero eta kolore beltzagoa hartu zuen. Arrautzetatik ateratako zapaburuak hil egiten ziren eta horrek arriskuan jartzen zuen





Floridako populazioak aurre-
ra jarraitzeko aukera.

Hori horrela, Gasteizko Uda-
leko Eratzun berdeko eta Bio-
aniztasunaren Unitateko Luis
Lobo teknikariak proposamen
bat egin zuen: urmaela hustu-
ko zen aldiro, aurretik, lagin-
keta bat egitea eta ahal ziren
zapaburu gehienak urez bete-
riko bidoietan biltzea urmaela
berriz urez bete artean. Hala,
zapaburuak hustubidetik
behera joatea saihestuko zen.
Horrela, 2014tik 2023ko uztai-
lera arte 13.499 zapaburu sal-
batu dituzte, eta txantxikua-
ren populazioak egun
Floridan jarraitzen du, bere ja-
torriko lekuan.

2019ko urtarrilaren 18an, or-
dea, txantxikuari aukera berri
bat ireki zitzaion. Ia nahi gabe,
Arabako Campuseko Hezkun-
tza Fakultateko ikasleek eta
irakasleek emandako aukera
bat. Eta hor, Gasteiz inguruko
txantxiku populazio honen
historiaren bigarren zati bat
hasi zen.

AUKERA BERRIAK

2019ko urte hasieran Euskal
Herriko Unibertsitateko (EHU)
irakaslea den Dani Zuazagoitia
Aranzadi Zientzia Elkartear-
kin jarri zen harremanetan.
Eskoletako Urmaelen Sareko

partaide izan nahi zuten, eta
horretarako, Campusetik oso
gertu dagoen lur zati bat auke-
ratu zuten. Eremua, garai ba-
tean, mojen eraikuntza zahar
baten parte zen eta uniberts-
itatekoen buruan zegoen ikas-
leekin kanpo espazioen erabi-
lerarako laborategi natural
bihurtzea lur puska hori: bara-
tzea, arbolak, intsektuentzako
hotelak, hegaztien habiak eta
urmaela sortu nahi zituzten,
besteak beste, ikasleekin.

EHUkoek proposaturiko gu-
neak urmael txiki bat egiteko
baldintzak betetzen zituen,
baina gabezia bat zuen nabar-
mena, eta hala adierazi zi-
tzaien hasieratik: mojen lurrak
horma zahar batez zeuden in-
guratuta. Ezinezkoa zen ani-
malia espezie batzuk urmael
berria kolonizatzea, kanpotik
bere kasa sartzea. Izan ere, hor-

Ezkerrean, Manuel Angel de
Chavarri arkitektoak
egindako 1825eko Gasteizko
plano zaharra. Eskuinean,
langileak zapaburuak
biltzen, garbiketari ekin
aurretik.

GASTEIZKO PILAR AROSTEGUI
UDAL ARTXIBOA - GAUR8

**Garai batean baratzeek, landa eremuak eta
errekastoek osatzen zuten paisaia Florida
lorategiaren inguruan, eta horiek txantxiku
arruntarentzat bizileku proposa osatzen zuten**

**Txantxikuak zuen bizitoki zabala desagertzen
joan zen heinean, Gasteiz urbano berrian
babesleku bakarra aurkituko zukeen anfibioak:
Floridako parkea eta bertako urmael artifizia**

mak berak saihesten zuen ho-
riek eremura sartzea. Urmaela-
ren erabilera didaktikorako, or-
dea, hori ez zen oztopoa, eta
hala, ikasleek, irakasleek eta
Aranzadiko teknikariek auzo-
lanean eraiki zuten urmael be-
rria. Eta ondoren, gainera, hez-
kuntza arloko kongresu batean
erakutsiko zen prozesu aberats
eta interesgarri batekin eraiki.

Urmaela eginda, segituan
hasi ziren urmael inguruko
landareak hazten bere kasa,
eta hegaztiak ere agertu ziren
horma zaharraren altura gain-
ditzen duten arbolan adar ar-
tetik. Putzu inguruetan orno-
gabeak ziren, baina horma
zaharra zeharkatzea ezinezkoa
zen espezie askorentzat; esate-
rako, anfibioentzat.

Eta hala, erabaki zuten, adi-
bidez, eremura sartzeko ze-
goen atea aldatu, eta burdinez
egindako barrak zituen ate ire-
kia jartzea, eremua kanpora
irekitzeko; eta kanpoaldea ere-
mura sartzeko. Hormaren bes-
te aldean, ordea, arazoa han-
diagoa zen: hiriak ez zion
faunari mugimendu askorako
aukerarik ematen. Asfaltoak
mugatzen zuen anfibioen mu-
gimendua. Horma zaharreko
atea ez zen, itxuraz, animalien
oztopo bakarra. Habitata edo
bizilekua zen aldatu zena.

UNIBERTSITATERAKO BIDAIA

Urte haietan, kafe bat eskuan
duzula egiten diren elkarriketa
horietako batean jakin ge-
nuen Floridako txantxiku
arruntaren populazioaren be-
rria. Unibertsitatean sortu berri
genuen urmaeletik apenas
200 metrora zegoen txantxi-
kua, Floridako parkean. Bage-
nekien, era berean, Luis Lobok
zapaburu horiek hartu eta ur-
tero bidoi handietan izaten zi-
tuela dena garbitu artean. Eta
orduan, galdera suertatu zen:
auzoa handitu aurretik, izan-
go al zen txantxikurik mojen
lur hauen inguruan, egun
Campusa dagoen lekuan?

Zalantzarik gabe, kasu bere-
zi baten aurrean ginen. Flori-
dako parkea egin aurretik,
Gasteiz zaharrean, egun Cam-
pusa dagoen lekuan zeuden
landa lur eta baratze ingurue-
tako erreketan txantxikua
kantuan izango zela gauza
nahiko segurua da. Floridan
gelditu den populazioa, garai
batean Campus inguruan ibili-
ko zenaren arrasto bat baino
ez da izango.

Egun, alabaina, Campusean
putzua egin arren, Floridako
txantxikuen eta Campuseko
putzuaren arteko distantzia
mundu bat bihurtu da. 200
metroko distantzia txikia ze-



na, zeharkatzeko ezina den bi-de bihurtu da hiriaren handitzearekin. Alegia, txantxikua Campuseko urmael berrira bere kabuz iristea ia ezinezko kontua zen, nahiz eta garai batean dena bat izan.

Hala, unibertsitateko irakasleak Luis Loborekin hitz egin, eta biologoen artean salbuespena izaten den ekintza bat egitea adostu zuten. Floridako parkean garbiketak egiteko garaian ateratako zapaburu batzuk Campuseko urmaelera eramango zituzten. Hala, 1825eko mapa zaharrean ikus daitekeen moduan, txantxikuak bere jatorrizko eremuaren beste zati bat berreskuratuko zukeen, eta hala, justizia pixka bat egin espeziearekin. Txantxikuaren birkonkista egingo zen. Pentsatu eta egin.

ANIMALIEN TRASLOKAZIOAK

Esan bezala, ordea, animaliak batetik bestera mugitzea ondo

justifikaturiko ekintza izan zen kasu honetan. Ezagutzen zen populazioaren aurreko banaketa izan zitekeena, eta egun, gizakiaren ondorioz habitat hori suntsitzean, ezinezkoa zen espezieak berriz ere bere jatorrizko eremua berreskuratzea. Beraz, urmael berria sortzean, aukera ona izan zitekeela pentsatu zen. Esan bezala, baina, hori arrazoituriko salbuespena izan zen. Beste kasu gehiengutan egin behar ez den ekintza.

Eskoletako Urmaelen Sarean sartzen diren ikastetxeen gal-

Floridako lorategiak izan ditu bere gorabeherak eta txantxiku populazioaren egoera asko okertzeko arriskuan izan zen bertan, harik eta irtenbide bat topatu zioten arte

Urmaela husten den aldiro, aurretik laginketa bat egiten da eta ahal diren zapaburu gehienak urez beteriko bidoietan biltzen dira urmaela berriz urez bete artean

Ezkerrean, bi txantxiku urertzeko lokatzetan. Eskuinean, bildutako zapaburu baten lehen plano. GAUR8



dera ohikoa izan ohi da ea animaliak sar ditzaketen edo Aranzadik berak eramaten dituen putzura. Erantzuna beti bera da: sorturiko urmaelak bere bidea eta eboluzioa jarraitu behar du. Araua garbia da: ez askatu animaliarik zuen urmaelean. Urmaelak berak erakarriko ditu animaliak eta horientzat egokia bada, gerturatuko dira. Eta hala, batzuetan azkarrago, besteetan mantsoago, animaliak urmaeleko putzuetara gerturatzen dira.

Prozesu polita izateaz gain, oso interesgarria da ikasleekin segida ekologikoaz, habitatez eta eskala txikiko migrazioaz hitz egiteko. Eta era berean, oso interesgarria da erakusteko nola animaliak batetik bestera mugitzean gizakia naturaren erritmoa eraldatzen ari den, edo gaixotasunak batetik bestera pasatzeko arriskua izan daitekeen edo populazioaren genetikan eragin dezakeen.

Floridako kasuan, alabaina, gizakiak sorturiko hiria, Gasteiz bera, zen aurretik populazio bat zegoen eremuan orain berriz ere egoera horretara bueltatzea ekiditen zuena. Gizakiak suntsitu eta banatu

zuen txantxiku populazioa hirian, eta jada, gizakiaren laguntzarik gabe, ezinezkoa zen aurrera egitea, porlan, asfalto, errepide eta abarren artean. Txantxikua isolatua zegoen Floridan. Orain, ordea, urmael berriaren babesean, berriz ere aurretik zegoen eremuaren zati bat berreskuratu du, eta erakutsi, gauzak ondo eginda, hiriguneetako biodibertsitatea handitzeko pausoak beti eman daitezkeela.

BIRKONKISTA GEHIAGO

Unibertsitatea, ordea, ez da izan txantxikuak birkonkistatu duen eremu bakarra. Izan ere, Gasteizko Udalak, Floridako populazioaren arriskua ikusita, aurretik txantxikuaren eremuak izan zitezkeen eremu gehiago aurkitu ditu, eta horiek erabili, Gasteizko txantxikuaren populazioa indartzeko. Luis Loboren arabera, ordea, eremu horiek baldintza gehiago bete behar zituzten, eta hala, irizpide garbiak eta zorrotzak jarri dituzte horretarako.

Anfibioen gaixotasunen azken urteetako igoera ikusirik, txantxikuak askatu dituzten eremu berriak anfibiorik gabe-

ko guneak dira. Hala, anfibioen artean gaixotasunak (baldin eta baleude) kutsatzea ekiditen da. Eta arrainik gabeko eremuak bilatu dituzte, arrainek anfibioengan sortzen dituzten kalteak saihesteko. Askaturiko eremu berriak isolatuta daude, txantxikua bere kabuz iristeko, ezinezkoa den guneetan eta bertako putzuetan babesguneak dituzte, bai ur barruan, bai kanpoan. Husterako orduan, gainera, anfibioekiko errespetuzko maneiuak erabiltzen dira.

Era horretan, txantxikuaren beste bi populazio urbano sortu dira Gasteizen. Bata Ekialdeko parkean, Salburua auzoan, hainbat urtetan zehar 701 zapaburu askatu ostean. Bestea Sansomendi parkean, izen bereko auzoan, 668 zapaburu askatu ostean.

Egun, bi eremu horietan, txantxikuek populazio egonkorak eta ugalkorak dituzte. Hala, txantxikuak egungo Gasteiz urbano eta zabala sortu aurreko eremu batzuk berreskuratu ditu, hiriguneko parkeak biodibertsitatera irerikiz, eta era berean, apo txiki hau etorkizuneko irakasleak izango direnak zientzian murgiltzeko aitzakia ederra bihurtuz.

AITZAKIA ZIENTZIA IKASTEKO

Gasteizko Campusean dagoen Hazi Campusa proiektua eredugarria bihurtu da bai unibertsitate mailan, bai ikastetxeentzat ere. Gasteizko magisteritzako ikasleak direnek bertan egiten dute haien ikasketen zati bat. Hala, kanpo espazioen eta espazio berdeen erabileran trebatzen dira, etorkizunean, horiek erabiliz, kultura zientifikoa, naturaren ezagutza eta beste hainbat kontzeptu etorkizunean, ikastetxeetan, haien ikasleak izango direnekin lantzeko.

Horien barruan, urmaelak pisu handia hartu du eta txantxikua aitzakia ederra bihurtu da proiektuarekin aurrera egiteko. Azken urte honetan txantxiku helduak aurkitu dituzte urmaelaren inguruan, eta duela aste batzuk, txantxiku gaztetxo bat. Badirudi, pixkanaka, populazio egonkor txiki bat sortzen ari dela horma zaharren artean.

Txantxikuarenak, ordea, erronka txiki bat ere jarri die ikasleei. Dani Zuazagoitia irakasleak aipatu digu azken urteetako beroak direla-eta, urmaela gero eta sarriago lehortzen dela. Agian orientazioak ere ez duela laguntzen, putzua leku eguteren dagoelako oso, eta orain bueltaka ari dira, zer egin pentsatzen. Zailantzarik gabe, ikasleek badute ikas-egoera berri bat, arazo egoera erreala, nondik tira. Guk pista bat baino ez dugu emango: txantxikuei ikaragarri gustatzen zaizkie askak...

Kontuak kontu, urteak joan eta urteak etorri, badirudi Floridako parkean bizi den txantxiku populazioa egonkortu egin dela azken hamarkadan emandako pauso garrantzitsuei esker. Orain, unibertsitatean, aukera oso polita dute haien txantxiku populazioaren zatia Hazi Campusean egonkortzeko, eta hala, mojen pareta zaharren artean garai batean entzungo zen kantua, txantxiku arruntarena, kantu berri bihurtzeko.

Floridako parkean garbiketak egiteko garaian ateratako zapaburu batzuk Campuseko urmaelera eraman zituzten, salbuespen modura hartu behar den traslokazioa

Campusekoaz gain, txantxikuaren beste bi populazio urbano sortu dira Gasteizen, bat Ekialdeko parkean, Salburua auzoan, eta bestea Sansomendi parkean, izen bereko auzoan

txikua aitzakia ederra bihurtu da proiektuarekin aurrera egiteko. Azken urte honetan txantxiku helduak aurkitu dituzte urmaelaren inguruan, eta duela aste batzuk, txantxiku gaztetxo bat. Badirudi, pixkanaka, populazio egonkor txiki bat sortzen ari dela horma zaharren artean.

Txantxikuarenak, ordea, erronka txiki bat ere jarri die ikasleei. Dani Zuazagoitia irakasleak aipatu digu azken urteetako beroak direla-eta, urmaela gero eta sarriago lehortzen dela. Agian orientazioak ere ez duela laguntzen, putzua leku eguteren dagoelako oso, eta orain bueltaka ari dira, zer egin pentsatzen. Zailantzarik gabe, ikasleek badute ikas-egoera berri bat, arazo egoera erreala, nondik tira. Guk pista bat baino ez dugu emango: txantxikuei ikaragarri gustatzen zaizkie askak...

Kontuak kontu, urteak joan eta urteak etorri, badirudi Floridako parkean bizi den txantxiku populazioa egonkortu egin dela azken hamarkadan emandako pauso garrantzitsuei esker. Orain, unibertsitatean, aukera oso polita dute haien txantxiku populazioaren zatia Hazi Campusean egonkortzeko, eta hala, mojen pareta zaharren artean garai batean entzungo zen kantua, txantxiku arruntarena, kantu berri bihurtzeko.

